

**EUSKADIKO UDAL-ARLO PUBLIKOKO
AURREKONTU-ANALISIA**

2020

EUSKADIKO UDAL-ARLO PUBLIKOA 2019

Aurkibidea

1.	HITZAURREA	7
2.	DIRU-SARRERAK.....	11
2.1	ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKAKOA.....	11
2.2	POPULAZIO-MAILAKA	18
3.	GASTUAK.....	23
3.1	ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKAKOA.....	23
3.2	POPULAZIO-MAILAKA	27
4.	ZORPETZEA.....	31
5.	EKONOMIA ETA FINANTZA EGOERA.....	33
5.1	ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKAKOA.....	33
5.2	POPULAZIO-MAILAKA	34
6.	ZERGA ITUNDUETAN UDAL PARTE-HARTZEA.....	35
7.	ERANSKINA	39

Koadroen aurkibidea

1.1 Koadroa: Entitateen lurralde banaketa eta sailkapena	8
1.2 Koadroa: Populazioaren banaketa udalerrien tamainaren arabera	8
1.3 Koadroa: Udalen sozietate publikoak. Jardueraren araberako sailkapena eta lurraldekako banaketa.....	9
1.4 Koadroa: Udalez gaindiko enpresak. Jardueraren araberako sailkapena eta lurraldekako banaketa.....	10
2.1 Koadroa: Udal-arlo publikoko diru-sarrera bateratuen bilakaera. EAE guztira.....	11
2.2 Koadroa: Diru-sarreraren sailkapen ekonomikoa 2020an lurraldeka, eta bilakaera aurreko urtearekiko	13
2.3 Koadroa: Diru-sarreraren iturri nagusiak kontzeptuen arabera. 2020.....	15
2.4 Koadroa: Biztanleko diru-sarrerak (Euro)	17
2.5 Koadroa: Diru-sarreraren sailkapen ekonomikoa: Bilakaera	19
2.6 Koadroa: Biztanleko eta populazio-mailen araberako presio fiskala (€/bizt.).....	20
2.7 Koadroa: Zerga-bilketaren eraginkortasuna (%)	21
2.8 Koadroa: Presio fiskal handiena duten udalerrak (€/bizt.).....	22
3.1 Koadroa: Udal-arlo publikoaren gastu bateratuen bilakaera. EAE guztira.....	23
3.2 Koadroa: Gastuen sailkapen ekonomikoa lurraldeka 2020an eta aurreko urtearekiko bilakaera.....	25
3.3 Koadroa: Udal-arlo publikoaren biztanleria okupatua.....	26
3.4 Koadroa: Biztanleko gastuak (euro).....	26
3.5 Koadroa: Gastuen sailkapen ekonomikoa: Bilakaera	28
4.1 Koadroa: Zorpetze-indizea orokorra eta lurraldeka (mila €).....	31
4.2 Koadroa: Zorpetze-indizea populazio-mailaka (mila €).....	31
4.3 Koadroa: Zor bizi formalizatua orokorra eta lurraldeka	32
4.4 Koadroa: Biztanleko zor bizi formalizatua, lurraldeka eta populazio-mailaka (€)	32
5.1 Koadroa: Ekonomia eta finantza egoera lurraldeka (mila €)	33
5.2 Koadroa: Ekonomia eta finantza egoera populazio-mailaka (mila €).....	34
6.1 Koadroa: Zerga itunduetan udal parte-hartzea	35
6.2 Koadroa: Zerga itunduetan udal parte-hartzearen bilakaera (mila €)	36
6.3 Koadroa: Zerga itunduetako partaidetza biztanleko eta populazio-mailaka (€)	36

Grafikoen aurkibidea

2.1 Grafikoa: Udal-arlo publikoaren diru-sarrera bateratuen sailkapen ekonomikoa lurraldeka. (%).....	12
2.2 Grafikoa: Diru-sarreraren banaketa lurraldeka. 2020 (%).....	12
2.3 Grafikoa: Udal-zergak guztizko diru-sarreretan	14
2.4 Grafikoa: Diru-sarrerak udal-zerga motaren arabera. (%).....	14
2.5 Grafikoa: Transferentzia arruntak guztizko diru-sarreretan.....	16
2.6 Grafikoa: Kapital transferentziak guztizko diru-sarreretan.....	16
2.7 Grafikoa: Diru-sarreraren sailkapen ekonomikoa populazio-mailaka. 2020	18
2.8 Grafikoa: Biztanleko diru-sarrerak (€)	20
3.1 Grafikoa: Gastuen sailkapen ekonomikoa, orokorra eta lurraldeka: Egitura.....	24

3.2 Grafikoa: Gastuen banaketa lurraldeka 2020 (%).....	24
3.3 Grafikoa: Gastuen sailkapen ekonomikoa populazio-mailaka: Egitura.....	27
3.4 Grafikoa: Gastuak biztanleko (€).....	29

1. HITZAURREA

Azterlan honetan udal-arlo publikoan sartu diren entitateak honako hauek dira:

- Udalerriak
- Udalerrien mendeko erakundeak
 - Erakunde autonomoak
 - Udal-sozietate publikoak
 - Toki-erakunde txikiak
- Udalergi-elkarteak
 - Kuadrillak
 - Mankomunitateak
 - Partzuergoak
 - Udalergi batek baino gehiagok osatutako sozietate publikoak edo udalez gaindiko sozietateak

Sozietate publikoak kontuan hartuko dira, udalen kapital sozialeko partaidetza % 50etik gorakoa bada.

2020. ekitaldiari dagozkion udal-entitateen aurrekontu-likidazioetako datuak aurkeztu dira, aitortutako eskubideak eta obligazioak. Datu horiek Eustatek bildu ditu “Sektore publikoaren aurrekontuen estatistika” eragiketan. Biztanleriari eta Barne Produktu Gordinari buruzko informazioa aipatutako erakunde berak argitaratu du.

2019. eta 2020. urteen artean, aztertu den udal-entitateen eta udalez gaindiko entitateen kopuruak ez du izan aldaketa esanguratsurik, nahiz eta 2013an hasitako beheranzko joerak bere horretan jarraitzen duen.

Urtetik urterako aldaketan jatorriak bi dira: alde batetik, entitateak sortu edo desagertu izana eta, bestetik, lortutako jasotze-tasa, handiagoa edo txikiagoa izatea. Zehazki, 2020ko 2019arekin alderatuta guztizko kopuruaren aldaketaren arrazoia honetan datza: 8 erakunde autonomoren, 3 udal-entrepresaren eta 3 udalergi-elkarteren azterketatik irtetearen eta udal-entrepresa 1 sartzearen ondorio da. Irteerak 11 erakunde desagitearen eta 2 ez biltzearen ondorio dira.

1.1 Koadroa: Entitateen lurralde banaketa eta sailkapena

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
UDALERRIAK	51	112	88	251
TOKIKO ENTITATE TXIKIAK	334	4	2	340
ERAKUNDE AUTONOMOAK	7	45	21	73
UDAL-ENPRESAK	10	40	41	91
UDAL-ELKARTEAK	32	17	25	74
UDALERRI-ELKARTEEN ENPRESAK	0	4	15	19
GUZTIRA	434	222	192	848

Analisia lurralde historikoka eta populazio-mailaka egin da. Horretarako, udalak 5 multzotan banatu dira.

1.2 Koadroa: Populazioaren banaketa udalerrien tamainaren arabera

	1. Pop.-maila <=1000		2. Pop.-maila 1.001-5.000		3. Pop.-maila 5.001-20.000		4. Pop.-maila >20.000 (Hirib. ezik)		5. Pop.-maila Hiriburuak		GUZTIRA
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	
ARABA											
UDALERRIAK	28	54,9	19	37,3	3	5,9	-	-	1	2,0	51
POPULAZIOA	12.710	3,8	35.930	10,9	33.716	10,2	-	-	247.833	75,1	330.189
BIZKAIA											
UDALERRIAK	38	33,9	40	35,7	23	20,5	10	8,9	1	0,9	112
POPULAZIOA	19.331	1,7	94.447	8,3	238.464	20,8	449.219	39,3	342.662	29,9	1.144.123
GIPUZKOA											
UDALERRIAK	32	36,4	22	25,0	27	30,7	6	6,8	1	1,1	88
POPULAZIOA	12.666	1,8	48.800	6,8	282.301	39,3	193.032	26,9	182.088	25,3	718.887
GUZTIRA											
UDALERRIAK	98	39,0	81	32,3	53	21,1	16	6,4	3	1,2	251
POPULAZIOA	44.707	2,0	179.177	8,2	554.481	25,3	642.251	29,3	772.583	35,2	2.193.199

ITURRIA: EUSTAT. Biztanleen Udal Erroldaren Estatistika

Lurralde-berezitasunak daude populazioaren banaketari dagokionez: Araban, populazioaren % 75 hiriburuan dago bilduta; Bizkaian, aldiz, populazioaren % 30 hiriburuan bizi da, baina % 69ra iristen da, 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrriak kontuan hartzen baditugu; azkenik, Gipuzkoan, hiriburuan % 25 biltzen da eta, 20.000 biztanle baino gehiagokoak gehituta, % 52ra heltzen da.

Adierazi behar da 2020an udalerrri bakar batean ere ez dela populazio-maila aldaketarik gertatu aurreko aldiarekin alderatuta, eta, beraz, bi ekitaldietako datuak guztiz konparagarriak dira alderdi horretan.

Azkenik, adierazi behar da aurreko ekitaldiko datuak berriro lantzen direla, azterlanaren urtean eskuragarri dagoen informazioaren arabera.

Lurralde historikoka egiten den analisiak barne hartzen ditu udal-entitateen eta udalez gaindiko entitateen datuak. Hala ere, udalaz gaindiko entitateen datuak ezin direnez zehatz-mehatz egotzi udalerrien artean, biztanleria-mailaka emandako datuak udal-eremuko erakundeei buruzkoak baino ez dira¹.

Datuen azterketa egokia egiteko, zerbitzu batzuen kudeaketan dauden berezitasunak kontuan izan behar ditugu (zabor bilketa, ur hornidura, garraio publikoa...). Horrela, Vitoria-Gasteizen, Amvisa da ur hornidura zerbitzuaren arduraduna. Udal entitatea da eta, horrela, bere datuak udalerrien datuekin multzokatu dira eta populazio-mailaka egiten den azterketaren barnean dago. Bilbon eta Donostian zerbitzu hau ematen dutenak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa eta Añarbeko Urak dira, hurrenez hurren. Horiek udalez gaindiko enpresak dira eta lurraldeka egiten den azterketaren barnean daude.

1.3 Koadroa: Udalen sozietate publikoak. Jardueraren arabeko sailkapena eta lurraldekako banaketa

JARDUERA POPULAZIO- MAILA	ARABA						BIZKAIA						GIPUZKOA						EAE						
	1	2	3	4	5	G	1	2	3	4	5	G	1	2	3	4	5	G	1	2	3	4	5	G	
Turismoa															1		1	2				1		1	2
Ura, zaborra eta garbiketa					1	1			1			1			1			1			1	1	1		3
Hiri-garraioa					1	1					1	1					1	1						3	3
Kirol-instalazioak										2	1	3			1		1	2			1	2	2		5
Enplegu-sustapena									3	2		5									3	2			5
Kultura										1	2	3			1		3	4			1	1	5		7
Energia		1				1							1		5			6	1	1	5				7
Garapen-agentziak			1			1		1	2		1	4			1	1	1	3		1	4	1	2		8
Beste batzuk		1				1		2	1	1	3	7				2	2	4		3	1	3	5		12
Lurra, hirig eta etxebi.	1	1	1		2	5	7	4	4	1		16	3	12	2		1	18	1	11	17	6	4		39
GUZTIRA	1	3	2	4	10	10	10	11	10	9	40	41	1	3	21	6	10	41	2	16	34	16	23	91	

Datuetan jasotzen diren udal-sozietateen % 45 Gipuzkoan daude, % 44 Bizkaian eta % 11 Araban. Halaber, nabarmendu behar da aztertutako udal enpresen % 43 lurra, hirigintza eta etxebizitza arlokoa dela.

¹ Erakunde guztien datuak dituzten koadroak urdin kolorekoak dira, eta udal erakundeei dagozkienak, berriz, berde kolorekoak dira.

1.4 Koadroa: Udalez gaindiko enpresak. Jardueraren arabera sailkapena eta lurraldekako banaketa

JARDUERA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
HILTEGIAK	0	0	1	1
TURISMOA	0	0	1	1
LURRA, HIRIG., ETXEBI.	0	1	2	3
URA, ZABORRA, GARBIKETA	0	1	6	7
GARAPEN-AGENTZIAK	0	2	5	7
GUZTIRA	0	4	15	19

2020an jasotako udalez gaindiko enpresen % 79 Gipuzkoan daude eta gainerako % 21a Bizkaian.

2. DIRU-SARRERAK

2.1 ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKAKOA

Diru-sarreraren bilakaerari eta ezaugarriari buruz hauxe nabarmendu behar dugu:


- 2020ko ekitaldian, COVID-19ak eragindako osasun-krisiak markatuta, udal-arloko diru-sarrera bateratuen zenbatekoa 3.635 miloi eurokoa izan da, hau da, 2019an izandakoa baino % 7,4 gutxiago (-290 milioi). Jaitsiera orokorra da, kontzejuetan izan ezik. Udalek (-245 milioi), udal-sozietateek (-23 milioi) eta udal-erakunde autonomoek (-20 milioi) izan dute beherakadarik handiena.
- Diru-sarreraren zifra orokor bateratuaren urte arteko bilakaera hiru lurralde historikoetan jaitsi da: Bizkaian (-% 7,9) eta Gipuzkoan (-% 8,0) tasa handiagoa izan da Araban (-% 4,0) baino.
- Toki-erakunde txikien diru-sarreraren gehikuntza ondare-sarreraren eta kapital-transferentzien gorakadak eragin du. Bestalde, administrazioko erakunde autonomoek beherakada izan dute, bai 2020an haien zerbitzu gutxiago erabili direlako, bai Gipuzkoako Foru Aldundia egoitzen kudeaketa bere gain hartzen ari delako.

2.1 Koadroa: Udal-arlo publikoko diru-sarrera bateratuen bilakaera. EAE guztira.


	2019		2020		Δ%
	Mila €	%	Mila €	%	
Udalak eta beren mendeko entitateak					
Tokiko entitate txikiak	20.530	0,5	22.678	0,6	10,5
Adm. erakunde autonomoak	92.760	2,4	72.607	2,0	-21,7
Sozietate publikoak	168.051	4,3	144.868	4,0	-13,8
Udalerriak	3.296.201	84,0	3.050.911	83,9	-7,4
GUZTIZKO PARTZIALA	3.577.543	91,2	3.291.064	90,5	-8,0
Udalez gaindiko entitateak					
Mankom., partzuergoak, kuadrillak...	263.709	6,7	261.667	7,2	-0,8
Udalez gaindiko enpresak	83.601	2,1	82.007	2,3	-1,9
GUZTIZKO PARTZIALA	347.310	8,8	343.674	9,5	-1,0
DIRU-SARRERAK BATERATUA GUZTIRA	3.924.853		3.634.738		-7,4

- Udal-sektore publikoko diru-sarreraren % 50 transferentziak dira; horietatik % 95 transferentzia arruntak dira, eta gainerako % 5a kapitalekoak. Zerga bidezko diru sarrerak % 45 dira, eta zorpetzea guztizkoaren % 1,8 da. Gipuzkoan zerga-sarrerak dira garrantzitsuenak; Araban eta Bizkaian, berriz, transferentzien ondoriozko diru-sarrerak.

2.1 Grafikoa: Udal-arlo publikoaren diru-sarrera bateratuen sailkapen ekonomikoa lurraldeka. (%)



2.2 Grafikoa: Diru-sarreraren banaketa lurraldeka. 2020 (%)




2.2 Koadroa: Diru-sarrerren sailkapen ekonomikoa 2020an lurraldeka, eta bilakaera aurreko urtearekiko

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Mila €	Δ % 20/19	Mila €	Δ % 20/19	Mila €	Δ % 20/19	Mila €	Δ % 20/19
Zuzeneko zergak	121.904	0,4	335.897	3,3	247.439	0,8	705.239	1,9
Zeharkako zergak	12.529	6,2	28.939	-18,2	19.612	-19,2	61.080	-14,5
Tasak eta best. zergak	116.533	-4,7	397.089	-11,6	356.520	-9,0	870.142	-9,7
Zerga -bidezko diru-sarrerak	250.965	-1,8	761.925	-5,9	623.571	-5,7	1.636.461	-5,3
Transferentzia arruntak	242.564	-9,1	927.588	-9,1	564.188	-7,3	1.734.339	-8,5
Kapital transferentziak	30.496	6,8	35.986	-18,9	19.905	-21,6	86.386	-12,1
Transferentziak	273.059	-7,6	963.573	-9,5	584.092	-7,9	1.820.725	-8,7
Ondare sarrerak	10.313	3,6	24.558	1,0	12.020	-25,6	46.891	-7,0
Inb. errealen besterentzea	9.168	103,3	17.044	-3,5	35.813	-42,4	62.025	-26,5
Finantza-aktiboak	504	695,0	1.071	-52,4	747	-58,6	2.322	-43,6
Bestelako diru-sarrerak	19.985	37,6	42.673	-3,5	48.580	-39,4	111.238	-19,9
GUZT. ZORPETZERIK GABE	544.009	-3,8	1.768.171	-7,9	1.256.243	-8,7	3.568.424	-7,6
Zorpetzea	11.937	-13,4	5.176	-28,4	49.200	12,5	66.314	2,4
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	555.947	-4,0	1.773.348	-7,9	1.305.444	-8,0	3.634.738	-7,4


- Zerga-sarrerak batez beste % 5,3ko atzerakada erakusten dute. Talde horren barruan, zuzeneko zergek aurrera egiten duten bitartean, bai zeharkakoek bai tasek behera egiten dute. Lurraldeka, beherakada handiagoa izan da Bizkaian eta Gipuzkoan (-% 5,9 eta -% 5,7) Araban baino (-% 1,8).
- Transferentzia arruntak beherakadak antzeko portaera izan du hiru lurraldeetan. Aldiz, kapital-transferentziek jokabide desberdinak dituzte lurraldeka. Bizkaian eta Gipuzkoan jaitsi egin dira (-% 18,9 eta -% 21,6), baina Araban % 6,8 igo dira.
- Zorpetze bidezko diru-sarrerak, oro har, % 2,4 hazi dira. Esan behar da, lurraldeka, Gipuzkoan bakarrik hazi dira.
- Azkenik, bestelako diru-sarreraren epigrafean urtetik urterako aldaketa handiak ikusten dira, hura osatzen duten kapituluaren ezegonkortasuna dela-eta. Azpimarratzekoa da inbertsio errealak besterentzeagatik eta hirigintzako jarduketetatik eratorritako bestelako sarreretan izandako jaitsiera (-% 26,5).

- Udal-zergak kontsolidatutako guztizkoaren % 21,1 dira, aurreko urtean baino ia 2 puntu handiagoa. Zuzeneko zergak zerga guztien % 92 inguru dira, eta OHZ da udalei baliabide gehien ematen dizkien zerga (udal-zerga guztien % 52,1).

2.3 Grafikoa: Udal-zergak guztizko diru-sarreretan



2.4 Grafikoa: Diru-sarrerak udal-zerga motaren arabera. (%)




- Diru-sarrereren kontzentrazioa zertxobait gutxitu da hiru kontzeptu garrantzitsuenetan: foru aldundietako transferentzia arruntak (% 43,6), tasak (% 15,1) eta OHZ (% 11,0); kopuru osoaren % 70 inguru.

2.3 Koadroa: Diru-sarrereren iturri nagusiak kontzeptuen arabera. 2020


		Mila €	%
420	Foru Aldundiarenak eta bestelako foru enteenak	1.583.589	43,6
31	Toki eskumeneko zerbitzuak eskaini edo jarduerak egiteagatiko tasak	549.463	15,1
112	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	399.389	11,0
113	Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga	137.867	3,8
41	Euskal Autonomia Erkidegokoak	128.930	3,5
130	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	106.088	2,9
30	Salmentak	89.003	2,4
32	Tokiko herri jabariaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak	77.590	2,1
93	Jasotako epe luzerako maileguak	63.338	1,7
114	Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga	61.895	1,7
282	Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	61.066	1,7
399	Beste hainbat sarrera	47.048	1,3
720	Foru Aldundiarenak eta bestelako foru enteenak	46.398	1,3
34	Prezio publikoak	36.351	1,0
391	Isunak	34.066	0,9
71	Euskal Autonomia Erkidegokoak	32.801	0,9
60	Lurrena	27.860	0,8
	GAINERAKOAK	151.997	4,2
	DIRU-SARRERAK GUZTIRA	3.634.738	100,0

- Transferentzia arruntak diru-sarrera guztien % 48 baino zertxobait gutxiago dira, eta gehienak foru-aldundietatik datoz (% 91). Kapital-transferentziak behera egin dute pixka bat, eta 2020ko diru-sarrera guztien % 2,4 baino ez dira: % 53,7 foru-aldundietatik datoz, % 38,0 Eusko Jaurlaritzatik eta % 2,7 Estatutik(2,3 M€).

2.5 Grafikoa: Transferentzia arruntak guztizko diru-sarreretan



2.6 Grafikoa: Kapital transferentziak guztizko diru-sarreretan



Azkenik, udal-arlo publikoaren biztanleko diru-sarrereren analisiak hau erakusten du:

- EAEko biztanleko diru-sarrerak 127 euro jaitsi dira batez beste, 2019. urtearekin alderatuta, eta 1.657 eurokoak dira. Horietatik, 30 euro bakarrik dagozkio zorpetzeari.
- Gipuzkoako biztanleko diru-sarrerak (1.816 €/bizt.) Arabakoak (1.684 €/bizt.) edo Bizkaikoak (1.550 €/bizt.) baino askoz handiagoak dira, batez ere zerga bidezko diru-sarrerengatik (867 euro biztanleko Gipuzkoan, eta 760 eta 666 euro biztanleko Araban eta Bizkaian, hurrenez hurren).
- Bestelako diru-sarreretan eta zorpetzeko baliabideetan ere Gipuzkoa buruan dago; Bizkaia, berriz, lehen postuan dago transferentzietatik datozen diru-sarreretan.
- 2019. urtearekin alderatuz, biztanleko diru-sarrerek behera egin dute hiru lurraldeetan: Araban (-% 4,0), Bizkaian (-% 7,5) eta Gipuzkoan (-% 7,1).

2.4 Koadroa: Biztanleko diru-sarrerak (Euro)


	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
Zerga bidezko diru-sarrerak	760	666	867	746
Transferentziak	827	842	812	830
Bestelako diru-sarrerak	61	37	68	51
Zorpetzerik gabe diru-sarrerak	1.648	1.545	1.747	1.627
Zorpetzea	36	5	68	30
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	1.684	1.550	1.816	1.657

2.2 POPULAZIO-MAILAKA

Populazio-mailak kontuan hartuta, hau ikusten da:

- Oro har, populazioa handitzen den heinean, zerga-bidezko diru-sarreraren protagonismoa indartzen da. Horrela, pisu erlatibo minimoa, % 30,3, udalerrri txikienetan gertatu da, eta maximoa, % 42,4, hiriburuetan.
- Udalerrri txikienetan transferentziak garrantzitsuagoak dira, batez ere, kapital transferentzien tamainagatik.
- Zorpetzearen pisu erlatiboa 4. populazio-mailako % 0,01eko minimoaren eta hiriburuetakoko % 4,2ko maximoaren tartean dago.

2.7 Grafikoa: Diru-sarreraren sailkapen ekonomikoa populazio-mailaka. 2020



- Zorpetzerik gabeko diru-sarrerak bost populazio-mailetan jaitsi dira, bi handienetan indar handiagoz. Guztizko diru-sarrerek ere behera egin dute populazio-maila guztietan, baina zorpetzearen igoerak hiriburuen guztizkoaren jaitsiera moteldu du.


2.5 Koadroa: Diru-sarreren sailkapen ekonomikoa: Bilakaera

	<=1.000		1.001-5.000		5.001-20.000		>20.000 Hirib. izan ezik		Hiriburuak	
	mila€	Δ %	mila€	Δ %	mila€	Δ %	mila€	Δ %	mila€	Δ %
Zerga-bidezko diru-sarrerak	25.079	-3,8	104.892	-1,8	303.861	-6,0	334.380	-6,7	583.440	-7,5
Transferentziak	52.418	-6,5	144.245	-7,8	412.937	-8,2	482.810	-9,1	678.582	-9,4
Bestelako diru-sarrerak	4.517	-27,5	9.636	-8,3	19.199	4,1	17.554	-11,3	54.743	-29,7
Zorpetzerik gabeko diru-sarrerak	82.014	-7,2	258.772	-5,5	735.997	-7,0	834.744	-8,2	1.316.765	-9,6
Zorpetzea	584	46,2	899	1,8	6.636	-66,5	104	-98,2	57.286	61,6
GUZTIRA	82.598	-6,9	259.671	-5,5	742.634	-8,5	834.847	-8,8	1.374.051	-7,9

Biztanleko diru-sarrerei dagokionez, populazio-mailaka, hau ikusten da:

- Biztanleko diru-sarrerak, hiriburuek osatzen duten populazio-mailan izan ezik, jaitsi egiten dira biztanleria hazten den heinean. Kontuan izan behar da udalerrri txikienek dituztela zifra handienak, finantzaketarako foru-funtzen transferentzia arruntetan gutxieneko zenbatekoak finkatu direlako eta udalerrri horietan kapital-transferentziek garrantzi handia dutelako.
- Hiriburuak bigarren postuan daude biztanleko diru-sarreren sailkapenean, zerga-gaitasun handiagoa dutelako eta hiriburuek foru funtsetan tratamendu berezia dutelako.
- EAEko biztanleko batez besteko diru-sarrera 1.502 eurokoa izan da 2020an, 2019koa baino 135 euro gutxiago. Batez bestekoaren azpitik daude erdiko hiru populazio mailetako udalerrriak, batez ere 20.000 biztanletik gorakoak, hiriburuak alde batera utzita (1.300 €/bizt). Talde horretan biztanleko zerga-sarrerarik txikiak daude.
- Hiriburuen batezbestekoak hauek dira: 1.646 €/bizt. Vitoria-Gasteizen, 1.664 €/bizt. Bilbon eta 2.174 €/bizt. Donostian.

2.8 Grafikoa: Biztanleko diru-sarrerak (€)



2.6 Koadroa: Biztanleko eta populazio-mailen arabeko presio fiskala² (€/bizt.)

POPULAZIO-MAILA	OHZ	TMIZ	HLBGZ	JEZ	EIOZ	GUZTIRA
1. <=1.000	198	71	7	44	39	359
2. 1.001-5.000	191	72	23	75	41	402
3. 5.001-20.000	176	70	18	47	23	335
4. >20.000 (Hiriburuak izan ezik)	178	58	19	36	28	319
5. Hiriburuak	187	59	45	54	27	372
VITORIA - GASTEIZ	180	63	56	64	37	401
BILBAO	159	55	23	41	19	298
DONOSTIA	248	62	73	62	29	474
EAE	182	63	28	48	28	349

² Presio fiskala: zuzeneko eta zeharkako zergen batuketa (tasak ez dira sartu, kontabilizazioarako irizpideak ezberdinak izaten direlako).

Udal-zergak kontuan hartuta, hau ikusten da:

- *Per capita* presio fiskal orokorrak % 0,6 egin du gora 2019. urtearekin alderatuta, biztanleko 349 euroko batezbestekora arte. OHZri dagokion ratioa (182 €/bizt.) nabarmentzen da gainerakoen gainetik, eta ikusten da hiriburuak eta bi populazio maila txikienetan dauden udalerrriak direla zerga honetan presio fiskal altuena dutenak.
- 2020an, behera egin dute HLBGZtik (-% 0,1) eta, batez ere, EIOZtik (-% 14,3) etorritako biztanle bakoitzeko diru-sarrerek. Gainerako zergek aurrera egin dute, OHZren hazkundera nabarmenduz (% 3,4).
- Biztanle bakoitzeko presio fiskal txikiena hiriburuak ez diren 20.000 biztanletik gorako udalerriei dagokie, eta altuena, 1.001-5.000 biztanle tarteko populazio-mailakoei.
- Hiriburuen artean, Bilboko datua nabarmentzen da (298 €/bizt), biztanleko presio fiskala Gasteizkoa (401 €/bizt.) eta Donostiakoa (474 €/bizt.) baino askoz txikiagoa baita.

2.7 Koadroa: Zerga-bilketaren eraginkortasuna (%)

POPULAZIO-MAILA	OHZ	TMIZ	HLBGZ	JEZ	EIOZ	GUZTIRA
1. <=1000	94,8	93,7	93,2	96,7	90,7	94,3
2. 1.001-5.000	95,6	87,3	82,8	95,7	88,1	92,6
3. 5.001-20.000	95,0	90,9	74,2	92,0	77,9	91,4
4. >20.000 (Hirib. izan ezik)	93,8	89,3	77,5	86,6	81,0	90,1
5. Hiriburuak	95,3	90,5	77,4	50,9	67,3	83,9
VITORIA - GASTEIZ	92,7	92,3	81,0	17,1	71,8	76,9
BILBAO	95,7	89,0	84,2	64,2	72,1	87,6
DONOSTIA	97,3	90,5	69,6	82,1	53,4	87,5
EAE	94,8	90,1	77,3	75,3	76,7	88,4

Bilketaren eraginkortasunari erreparatuz gero (diru-bilketa likidoa / aitorturiko eskubide garbiak), honako hauek nabarmendu behar dira:

- Eraginkortasun globala 1,1 puntu jaitsi da 2020an, eta % 88,4koa da. Populazio-mailen arabera, diru-bilketaren eraginkortasuna hiriburuen % 83,9 eta 1.000 biztanletik beherako udalerrien % 94,3 artekoa da.
- Emaiztarik onena OHZri dagokio, % 94,8. Balio horren azpitik dagoen populazio-maila bakarra 4. da.

- Aurreko urtearekin alderatuta, udal-zerga guztien bilketa-eraginkortasunaren adierazleak jaitsi egin dira.
- Hiriburuen artean, daturik onena Bilbon izan da (% 87,6), Vitoria-Gasteizen (% 76,9) baino askoz handiagoa; datu hori JEZren diru-bilketaren eraginkortasun txikiak markatu du³.

2.8 Koadroa: Presio fiskal⁴ handiena duten udalerriak (€/bizt.)

	POP.- MAILA	LH	OHZ	TMIZ	HLBGZ	JEZ	EIOZ	GUZTIR A
ZIERBENA	2	BIZKAIA	1.191	73	-	1.911	103	3.278
ZAMUDIO	2	BIZKAIA	417	123	46	704	62	1.353
LOIU	2	BIZKAIA	396	127	24	518	84	1.148
KUARTANGO	1	ARABA	888	61	-	91	19	1.059
ADUNA	1	GIPUZKOA	460	161	146	199	67	1.033
LANTARÓN	1	ARABA	359	59	-	324	195	937
DONEMILIAG A	1	ARABA	429	70	-	300	91	890
OLABERRIA	1	GIPUZKOA	371	139	15	209	100	835
GAUBEA	2	ARABA	369	58	62	8	274	771
ZIGOITIA	2	ARABA	402	59	77	148	67	752
EAE			182	63	28	48	28	349

Azkenik, presio fiskal handiena duten udalerrien rankingari dagokionez:

- Zerrendako buru diren udalerriek populazio txikia dute. Udalerri horiek rankingean sartzearen arrazoia da haietan azpiegitura garrantzitsuak (portua, teknologia parkea) eta/edo enpresa handiak daudela.
- Hala, Zierbena lehenengo lekuan dago, bertan Bilboko portua eta Petronor, Bahía de Bizkaia Electricidad edo Bahía de Bizkaia Gas bezalako enpresa handiak daudelako.
- Deigarria da Kuartangoko biztanleko OHZ altua. Izan ere, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergak hiri- eta landa-ondasun higiezinak zergapetzen ditu, baita ezaugarri bereziak dituzten ondasunak ere. Horien artean parke eolikoak daude, eta Kuartangon Badaiako parke eolikia dago.

³ Azterketan diru-sarrera eta gastu arruntak bakarrik aztertzen dira, hondarrak kontuan hartu gabe.

⁴ Presio fiskala: zuzeneko eta zeharkako zergen batuketak.

3. GASTUAK

3.1 ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKAKOA

Udal-sektore publikoko gastu kontsolidatuen bilakaerari eta ezaugarriei dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira:

- 2020an egindako gastu bateratuaren zenbatekoa 3.580 milioi eurokoa izan da, 2019an baino % 4,7 gutxiago. Kopuru hori Euskal Autonomia Erkidegoko urteko BPGd-aren % 5,0 da.
- Taldeka, beherakada handiena udal-erakunde autonomoetan eta udalez gairikiko sozietate publikoetan gertatu da. Gastua mankomunitateek, partzuergoek eta koadrilek osatutako taldean baino ez da hazi.


3.1 Koadroa: Udal-arlo publikoaren gastu bateratuen bilakaera. EAE guztira

EAE	2019		2020		Δ %
	Mila €	%	Mila €	%	
Udalak eta beren mendeko entitateak					
Tokiko entitate txikiak	23.511	0,6	22.883	0,6	-2,7
Adm. erakunde autonomoak	199.886	5,3	172.680	4,8	-13,6
Sozietate publikoak	340.171	9,1	329.647	9,2	-3,1
Udalerriak	2.768.819	73,7	2.635.302	73,6	-4,8
GUZTIZKO PARTZIALA	3.332.386	88,7	3.160.513	88,3	-5,2
Udalez gairikiko entitateak					
Mankom., partzuergoak, kuadrillak...	301.037	8,0	304.190	8,5	1,0
Udalez gairikiko enpresak	123.389	3,3	115.257	3,2	-6,6
GUZTIZKO PARTZIALA	424.426	11,3	419.446	11,7	-1,2
GASTU BATERATUAK, GUZTIRA	3.756.812		3.579.959		-4,7


- Sailkapen ekonomikoaren arabera, funtzionamendu-gastuak % 77,6 dira. Talde horren barruan, langile-gastuak % 36,5era iristen dira, eta ondasun arrunten eta zerbitzuen gastua, berriz, % 41,1era.
- Inbertsioaren pisua 1,9 puntu jaitsi da eta bateratutako guztizkoaren % 12,4 izan da.
- Lurraldeka, finantza-kargak Gipuzkoan (% 5,0) duen pisu handiagoa nabarmentzen da, Arabakoarekin (% 2,3) eta Bizkaikoarekin (% 0,9)

alderatuta. Arabako langile-gastuak (% 39,9) beste bi lurraldeetakoak baino handiagoak dira, ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuen kaltetan.

3.1 Grafikoa: Gastuen sailkapen ekonomikoa, orokorra eta lurraldeka: Egitura



3.2 Grafikoa: Gastuen banaketa lurraldeka 2020 (%)



- 2019ko datuekin alderatuta, gastuak bi kapitulutan hazi dira: langile-gastuak (% 0,5) eta transferentzia arruntak (% 12,2).

- Funtzionamendu-gastuak % 2,3 jaitsi dira, ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuen jaitsierak eraginda. Gastu horiek hiru lurraldeetan jaitsi dira.
- Inbertsio errealak % 19,5 jaitsi dira eta kapital-transferentzien murrizketa % 6,4koa izan da.
- Udal-sektorearen gastuek hiru lurraldeetan behera egin dute: Araban % 1,7, Bizkaian % 6,2 eta Gipuzkoan % 4,0.
- Finantza-kargak Gipuzkoan bakarrik egin du gora (% 6,8). Araban eta Bizkaian, berriz, behera egin du (-% 46,9 eta -% 36,3, hurrenez hurren). Hala, 2020an finantza-karga gastu guztien % 0,9 izan da Bizkaian, % 2,2 Araban eta % 5,0 Gipuzkoan..
- Inbertsio-gastuak Araban bakarrik hazi dira (% 24,2). Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, % 31,4 eta % 17,9 jaitsi dira, hurrenez hurren.

3.2 Koadroa: Gastuen sailkapen ekonomikoa lurraldeka 2020an eta aurreko urtearekiko bilakaera.

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Mila €	Δ % 20/19	Mila €	Δ % 20/19	Mila €	Δ % 20/19	Mila €	Δ % 20/19
Pertsonal gastuak	219.928	-1,2	639.595	0,7	445.761	0,9	1.305.283	0,5
Gastuak ondasun arrunt eta zerb.	202.359	-4,8	745.332	-4,0	523.888	-5,5	1.471.580	-4,6
Funtzionamendu-gastuak	422.287	-3,0	1.384.927	-1,8	969.649	-2,7	2.776.863	-2,3
Inbertsio errealak	83.316	22,1	173.539	-33,2	188.427	-16,4	445.281	-19,5
Kapital transferentziak	2.424	190,6	7.938	62,7	7.497	-43,9	17.859	-6,4
Inbertsio-gastuak	85.739	24,2	181.477	-31,4	195.924	-17,9	463.140	-19,1
Transferentzia arruntak	30.644	3,1	135.465	11,6	77.398	17,3	243.507	12,2
Finantza aktiboak	65	-98,1	2.123	-80,9	397	-63,1	2.585	-83,3
Bestelako gastuak	30.709	-7,1	137.588	3,8	77.794	16,0	246.092	5,8
FIN. KARGARIK GABEKO GASTUAK	538.735	0,3	1.703.992	-5,7	1.243.367	-4,5	3.486.095	-4,4
Finantza gastuak	1.279	-1,3	1.277	-11,8	11.465	-4,5	14.021	-4,9
Finantza pasiboak	11.091	-49,6	14.861	-37,7	53.891	9,5	79.843	-16,0
Finantza-karga GASTUAK, GUZTIRA	12.370	-46,9	16.137	-36,3	65.356	6,8	93.864	-14,5
	551.106	-1,7	1.720.130	-6,2	1.308.724	-4,0	3.579.959	-4,7

- Udal sektore publikoak 25.434 pertsona enplegatzen ditu 2020an, EAEko biztanleria okupatuaren urteko batezbestekoaren % 2,7. 2019an langileen zenbatekoa 25.587koa izan zen.

3.3 Koadroa: Udal-arlo publikoaren biztanleria okupatua

	ARABA	BIZKAI A	GIPUZKO A	EAE
Udal-arlo publikoko langileak (1)	4.732	11.760	8.942	25.434
Urteko batez besteko langileak, lurralde historikoka (2)	142.300	475.700	311.200	929.200
EHUNEKOA (1) / (2)	3,3%	2,5%	2,9%	2,7%

Azkenik, udal-sektore publikoko biztanle bakoitzeko gastuen azterketak agerian uzten du honako hau:

- Biztanleko gastuek, guztira, 76 € egin dute behera, eta batezbestekoa 1.632 eurotan dago; horietatik, 1.266 funtzionamendu-gastuei dagozkie. Jaitsiera hiru lurraldeetan izan da: 29 euro Araban, 92 Bizkaian eta 71 Gipuzkoan. Gipuzkoa da, oraindik ere, batez besteko altuena duen lurraldea (1.820 €/bizt.), Arabaren (1.669 €/bizt.) eta Bizkaiaren (1.503 €/bizt.) aurretik.
- Lurraldeetan gertatu diren aldaketen ondorioz, lurraldeen arteko tartea hazi egin da aurreko urtearekin alderatuta, eta 2020an 317 €-koa izan da, 2019ko 277 euroen aldean.
- Gipuzkoak du biztanle bakoitzeko inbertsio-gasturik handiena (273 €/bizt.), ondoren Arabak (260 €/bizt.) eta Bizkaiak (159 €/bizt.). Funtzionamendu-gastuei dagokienez, ratorik txikiena Bizkaiari dagokio (1.210 €/bizt.) eta handiena Gipuzkoari (1.349 €/bizt.). Finantza-kargak behera egin du Araban eta Bizkaian, eta gora Gipuzkoan.

3.4 Koadroa: Biztanleko gastuak (euro)


	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
Funtzionamendu-gastuak	1.279	1.210	1.349	1.266
Inbertsio-gastuak	260	159	273	211
Bestelako gastuak	93	120	108	112
FIN. KARGARIK GABEKO GASTUAK	1.632	1.489	1.730	1.590
Finantza-karga	37	14	91	43
GASTUAK, GUZTIRA	1.669	1.503	1.820	1.632

3.2 POPULAZIO-MAILAKA

Populazio-mailak kontuan hartuta, EAEko udal-sektorearen gastu kontsolidatuaren egiturak honako hau erakusten du:

- Funtzionamendu-gastuek protagonismo handiagoa hartzen dute biztanleriak gora egin ahala, eta inbertsioek garrantzi erlatibo handiagoa, herri txikiagoetan.
- Funtzionamendu-gastuak apur bat igo dira, eta EAEko batez bestekoa % 75,0koa da. 2020an, inbertsioa, bi puntuko atzerakadarekin, % 12,2an geratu da.

3.3 Grafikoa: Gastuen sailkapen ekonomikoa populazio-mailak: Egitura



• Guztizko gastuek behera egin dute bost populazio-mailetan, laugarren populazio-maileko % 4,2tik biztanleria txikieneko % 7,6ra. Finantza-karga alde batera utzita, gastuek atzera egin dute ere bost populazio-mailetan 2019koekin alderatuta, eta populazio-mailakako mugimenduak, guztizkoarenak antzekoak dira.

• Funtzionamendu-gastuek % 3,0 egin dute behera, ondasunak eta zerbitzuak erostearen jaitsieraren ondorioz; langileen gastuek, berriz, % 0,3 egin dute gora.

• Finantza-karga % 17,5 jaitsi da globalean. Populazio-maila bakoitzeko aldakuntzen bolumena ez da oso esanguratsua. Osagaiei dagokienez,

finantza-gastuak % 5,9 murriztu dira, eta finantza-pasiboetako gastuak, % 18,2.

- Inbertsio-gastuek, batez beste, % 20,1 egin dute behera. Behera egiten dute populazio-maila guztietan, baina intentsitate handiagoarekin hirugarrenean eta laugarrenean. Osagaien arabera, inbertsio errealek eta kapital-transferentziek murrizketa izan dute: % 20,9 lehenengo kasuan eta % 3,4 bigarren kasuan.

3.5 Koadroa: Gastuen sailkapen ekonomikoa: Bilakaera

	<=1.000		1.001-5.000		5.001-20.000		>20.000 hirib. ezik		Hiriburuak	
	mila €	Δ %	mila €	Δ %	mila €	Δ %	mila €	Δ %	mila €	Δ %
Pertsonal gastuak	20.012	1,2	67.664	1,4	257.486	3,6	337.754	2,0	525.527	-2,4
Gast. ondasun arrunt eta zerb.	22.949	-10,9	94.834	-10,2	279.338	-6,2	330.781	-5,1	513.376	-5,3
Funtzionamendu-gastuak	42.961	-5,6	162.498	-5,7	536.824	-1,7	668.535	-1,7	1.038.903	-3,9
Inbertsio errealek	23.194	-15,5	45.012	-13,4	88.919	-28,5	78.620	-30,5	163.765	-12,9
Kapital transferentziak	774	449,0	659	-15,1	3.010	7,5	5.041	148,9	11.281	-28,4
Inbertsio-gastuak	23.968	-13,1	45.671	-13,4	91.929	-27,7	83.661	-27,3	175.046	-14,1
Transferentzia arruntak	7.076	-3,3	29.469	5,9	82.857	5,5	72.989	21,0	128.111	6,3
Finantza aktiboak	161	1515,8	392	91,9	1.608	141,8	412	-41,6	158	-69,7
Bestelako gastuak	7.236	-1,2	29.861	6,5	84.466	6,7	73.401	20,3	128.270	6,0
FIN. KARGARIK GABEKO GAST.	74.166	-7,8	238.030	-5,9	713.218	-5,2	825.597	-3,5	1.342.218	-4,5
Finantza gastuak	66	-14,6	475	25,2	1.015	-20,1	829	-10,9	2.552	-1,4
Finantza pasiboak	1.609	1,6	5.858	-4,4	16.907	-2,0	14.397	-30,5	31.030	-21,7
Finantza-karga	1.676	0,9	6.334	-2,6	17.922	-3,3	15.226	-29,7	33.582	-20,5
GASTUAK, GUZTIRA	75.841	-7,6	244.364	-5,9	731.141	-5,2	840.823	-4,2	1.375.800	-5,0


Populazio-mailaren araberako biztanleko gastuei dagokienez, honako hau ikus daiteke:

- Diru-sarreretan bezala, 4. populazio-mailak biztanleko zenbateko txikiena du (1.309 €/bizt.), hiriburuetakoa (1.781 €/bizt.) eta udalerrri txikienetako (1.696 €/bizt.) batez besteko balioen oso azpitik.
- Gastuen multzo nagusiari dagokionez, hau da, funtzionamendu-gastuak, 2. populazio-mailak zenbateko txikienak ditu, eta hiriburuenak, berriz, handienak.
- Hiriburuei dagozkien zenbatekoak honako hauek izan dira:

- Vitoria-Gasteiz: 1.639 €/bizt.
- Bilbo: 1.645 €/bizt.
- Donostia: 2.229 €/bizt.

Biztanle bakoitzeko gastuek behera egin dute hiru hiriburuetan: 40 euro Gasteizen, 100 Bilbon eta 108 Donostian. Horrela, Gipuzkoako hiriburuak oraindik hiru hirien artean ratio altuena du.

3.4 Grafikoa: Gastuak biztanleko (€)



4. ZORPETZEA

Zorpetze-indizea, finantza-karga ordaintzeko erabiltzen den diru-sarrera arrunten ehuneko azaltzen duena, berriro jaitsi da 2020an eta % 2,7an geratu da, 2019an baino 0,2 puntu gutxiago. Indizeak gora egin du Gipuzkoan (0,7 puntu), eta behera Araban eta Bizkaian (-1,9 eta -0,4 puntu, hurrenez hurren). Bizkaiko indizea, % 0,9, beste lurraldeetako baino nabarmen txikiagoa da.

4.1 Koadroa: Zorpetze-indizea orokorra eta lurraldeka (mila €)

	INTERESAK 3. KAP. GASTUAK	AMORTIZAZIOA 9. KAP. GASTUAK	FINANTZA- KARGA (1)	DIRU- SARRERA ARRUNTAK (2)	ZORPETZE- INDIZEA (1)/(2)
Araba	1.279	11.091	12.370	504.279	2,5%
Bizkaia	1.277	14.861	16.137	1.714.071	0,9%
Gipuzkoa	11.465	53.891	65.356	1.199.778	5,4%
Guztira	14.021	79.843	93.864	3.418.128	2,7%

Diru-sarrera arruntak murriztearen ondorioz, zorpetze-indizeak gora egiten du biztanleria txikieneko hiru populazio-mailetan. Aitzitik, biztanle gehien dituzten bi populazio-mailetan finantza-kargaren jaitsiera sarrera arruntena baino erlatiboki handiagoa da, eta, beraz, zorpetze-indizeak behera egiten du.

4.2 Koadroa: Zorpetze-indizea populazio-mailaka (mila €)

	INTERESAK 3. KAP. GASTUAK	AMORTIZAZIOA 9. KAP. GASTUAK	FINANTZA- KARGA (1)	DIRU-SARRERA ARRUNTAK (2)	ZORPETZE- INDIZEA (1)/(2)
1.Pop.-maila	66	1.609	1.676	66.671	2,5%
2.Pop.-maila	475	5.858	6.334	238.923	2,7%
3.Pop.-maila	1.015	16.907	17.922	711.643	2,5%
4.Pop.-maila	829	14.397	15.226	806.322	1,9%
5.Pop.-maila	2.552	31.030	33.582	1.267.432	2,6%
Guztira	4.937	69.802	74.739	3.090.992	2,4%

Guztizko zor biziari dagokionez (457 M€), 2019ko datuarekin alderatuta⁵, % 7,9 jaitsi da. Gipuzkoak guztizkoaren % 58 biltzen du, Arabak % 25 eta Bizkaiak gainerako % 17a. Zorra, BPGd-aren ehunekoan, Araban bakarrik

⁵ Eustatek 2006tik hona toki-erakunde zorraren datuak berrikusi ditu.

hazi da eta beste lurraldeetan jaitsi. Ratorik txikiena Bizkaiari dagokio (% 0,2), Arabaren (% 1,0) eta Gipuzkoaren (% 1,1) azpitik.

Zor biziaren 457 milioi horietatik, 43 milioi (% 9,4) udalez gaindiko entitateei dagozkie eta, horietatik, 41 milioi Gipuzkoakoak dira.

4.3 Koadroa: Zor bizi formalizatua orokorra eta lurraldeka

	2020 Mila euro	Lurralde- banaketa %	BPGd-aren gaineko %	Δ % 2020/2019	Biztanleko zor bizia €
Araba	115.212	25,2%	1,0%	1,6%	349
Bizkaia	75.843	16,6%	0,2%	-12,9%	66
Gipuzkoa	265.640	58,2%	1,1%	-10,1%	370
Guztira	456.695	100,0%	0,6%	-7,9%	208

Biztanle bakoitzeko zorraren zenbatekoa murriztu egin da 2019. urtearekin alderatuta, maila guztietan, hiriburuetan izan ezik. Azken horiek dute biztanleko zor handiena (312 €/bizt.). Gipuzkoak ditu balorerik altuenak maila guztietan, eta bereziki Donostia nabarmentzen da, 727 €/biztanleko zorrarekin. Bilbok, berriz, zor bizirik gabe jarraitzen du.

4.4 Koadroa: Biztanleko zor bizi formalizatua, lurraldeka eta populazio-mailaka (€)

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKO A	EAE
1. Populazio-maila	125	34	141	90
2. Populazio-maila	60	118	163	119
3. Populazio-maila	76	103	174	137
4. Populazio-maila	-	85	172	111
5. Populazio-maila	439	0	727	312
Guztira	349	65	312	189

5. EKONOMIA ETA FINANTZA EGOERA

5.1 ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKAKOA

EAEko udal-sektore publikoaren ekonomia eta finantza egoerari dagokionez, honako hau adierazi behar da:

- Finantzaketa-gaitasun globalak 141,2 milioi euroko beherakada izan du 2019. urtearekin alderatuta, aurrezki gordinaren % 36aren eta kapital-eraketaren % 19aren murrizketen ondorioz. Termino erlatiboetan, finantzatzeko gaitasuna BPGd-ren % 0,10 da.
- 2020an, hiru lurraldeek dute finantzaketa-gaitasun positiboa. Bizkaiak eta Gipuzkoak urteko zorpetze garbi negatiboa dute. Arabaren kasuan, zorpetzearen ondoriozko diru-sarrerek amortizazioak gainditu dituzte.
- Gipuzkoan aurrekontu-defizita dago, eta Araban eta Bizkaian, berriz, superabita murriztu da.

5.1 Koadroa: Ekonomia eta finantza egoera lurraldeka (mila €)

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
Diru-sarrera arruntak	503.842	1.714.071	1.199.778	3.417.691
Gastu arruntak	454.210	1.521.668	1.058.512	3.034.391
Aurrezki gordina	49.632	192.403	141.266	383.301
Kapital diru-sarrerak	39.663	53.030	55.718	148.411
Kapital gastuak	85.739	181.477	195.924	463.140
Kapital eraketa	46.076	128.447	140.206	314.729
Finantza Beharra (-) / Gaitasuna (+)	3.556	63.955	1.060	68.571
8. Kapituluak. Diru-sarrerak	504	1.071	747	2.322
8. Kapituluak. Gastuak	65	2.123	397	2.585
Zorpetze garbia. Beharra (-) / Gaitasuna (+)	3.995	62.903	1.411	68.308
9. Kapituluak. Diru-sarrerak	11.937	5.176	49.200	66.314
9. Kapituluak. Gastuak	11.091	14.861	53.891	79.843
Urteko zorpetze garbia	846	-9.685	-4.691	-13.529
Aurrekontuko Defizita (-) / Superabita (+)	4.841	53.218	-3.280	54.779

5.2 POPULAZIO-MAILAKA

- Biztanle gutxiagoko lau populazio-mailek finantzaketa-gaitasuna dute, eta hiriburuena da finantzaketa-beharra duen bakarra, bere aurrezki gordinaren murrizketa handiaren ondorioz.
- Egindako amortizazioek mailegu berrien zenbatekoak gainditu dituzte populazio-maila guztietan, hiriburuetan izan ezik.
- 2020an, hiru populazio-maila txikiagoek aurrekontu-superabita dute, eta bi handienek, berriz, defizita.

5.2 Koadroa: Ekonomia eta finantza egoera populazio-mailaka (mila €)

	POPULAZIO-MAILAK					GUZTIRA
	1.	2.	3.	4.	5.	
Diru-sarrera arruntak	66.671	238.487	711.643	806.322	1.267.432	3.090.555
Gastu arruntak	50.103	192.442	620.696	742.352	1.169.566	2.775.159
Aurrezki gordina	16.568	46.045	90.947	63.970	97.866	315.396
Kapital diru-sarrerak	15.341	20.071	23.898	27.901	49.198	136.409
Kapital gastuak	23.968	45.671	91.929	83.661	175.046	420.275
Kapital eraketa	8.627	25.600	68.031	55.760	125.848	283.866
Finantza Beharra (-) / Gaitasuna (+)	7.941	20.445	22.916	8.210	-27.982	31.530
8. Kapituluak. Diru-sarrerak	2	214	456	521	135	1.327
8. Kapituluak. Gastuak	161	392	1.608	412	158	2.732
Zorpetze garbia. Beharra (-)/Gaitasuna (+)	7.782	20.267	21.764	8.318	-28.005	30.125
9. Kapituluak. Diru-sarrerak	584	899	6.636	104	57.286	65.509
9. Kapituluak-gastuak	1.609	5.858	16.907	14.397	31.030	69.802
Urteko zorpetze garbia	-1.025	-4.959	-10.271	-14.293	26.256	-4.293
Aurrekontuko Defizita (-)/Superabita (+)	6.756	15.308	11.493	-5.975	-1.749	25.832

6. ZERGA ITUNDUETAN UDAL PARTE-HARTZEA

Aipatu den bezala, udal-arlo publikoaren diru-sarrereren iturri nagusia foru-aldundiek egindako transferentzia arruntak dira: hain zuzen ere, 2020. urtean udal entitateen diru-sarrera guztien % 47 izan dira, eta udalez gaindiko erakundeak sartzen badira, % 44.

Transferentzia horietatik, % 96 Ekonomia Itunaren kudeaketatik EAerako bideratzen diren zerga orokorren (PFEZ, sozietateen gaineko zerga, BEZ...) etekinetako partaidetzari dagokio. Batzar Nagusiek onetsitako udal finantzaketari buruzko foru-arauek arautzen dituzte bai partaidetza hori, bai udal-entitateen artean banatzeko irizpideak, lurralde historiko bakoitzean.

Arau horien arabera, ekitaldi bakoitzeko behin-behineko partaidetza diru-sarrereren aurrekontu-aurreikuspenak oinarri hartuta kalkulatzen da, eta ekitaldia itxi eta benetako bilketaren datuak jakin ondoren kitatzen da.

Horrela, 2020. ekitaldiko udal partaidetza zerga itunduetan, foru aldundien aurrekontu eta likidazioen arabera, honako hau izan da:

6.1 Koadroa: Zerga itunduetan udal parte-hartzea

	Behin-behinekoa Mila €	Likidazioa Mila €	Likidazioa biztanleko €/bizt.
ARABA	255.731	217.824	660
BIZKAIA	901.892	766.414	670
GIPUZKOA	536.288	482.049	671
GUZTIRA	1.693.911	1.466.286	669

2020an, udalek zerga itunduetan duten partaidetzaren likidazioa hiru lurraldeetan aurreikusitakoa baino txikiagoa izan da, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz bildutako zergen beherakada dela eta.

Baliabideen Banaketarako Metodologiaren martxoaren 23ko 2/2007 Legea indarrean egon den urteetan, toki-erakundeek itundutako zergetan izan duten behin betiko partaidetza honako koadroan ikus daiteke.

6.2 Koadroa: Zerga itunduetan udal parte-hartzearen bilakaera (mila €)

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
2007	206.239	830.078	424.057	1.460.375
2008	219.394	750.376	404.433	1.374.202
2009	171.938	672.382	342.982	1.187.302
2010	200.822	750.865	392.492	1.344.179
2011	176.509	733.169	355.576	1.265.254
2012	234.309	759.403	385.314	1.379.026
2013	169.655	733.188	387.879	1.290.723
2014	185.581	752.643	418.901	1.357.125
2015	211.446	736.348	437.002	1.384.795
2016	204.704	762.250	449.336	1.416.290
2017	222.967	807.248	468.313	1.498.528
2018	243.333	869.493	514.574	1.627.400
2019	242.861	895.123	529.508	1.667.492
2020	217.824	766.414	482.049	1.466.286

Bilakaera hori EAeko diru-bilketak garai honetan zehar izandakoarekin bat dator, eta krisi ekonomikoaren lehen etaparekin bat etorriz, 2009. eta 2011. ekitaldiek izan zuten portaera okerreana. Bestalde, aipatu beharra dago 2012. ekitaldiko emaitza ezohikoa izan zela, sarreretan estatu-laguntzak berreskuratu zirelako.

Populazio-mailaka sailkatuta, foru-aldundiek baldintzarik gabeko udal-finantzaketaren likidazioari buruz emandako informaziotik, honako datu hauek ondorioztatu dira:

6.3 Koadroa: Zerga itunduetako partaidetza biztanleko eta populazio-mailaka (€)

	ARABA*	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
1. <=1000	462	917	798	754
2. 1.001-5.000	490	633	649	609
3. 5.001-20.000	562	577	644	610
4. >20.000 (Hiriburuak izan ezik)	-	567	657	594
5. Hiriburuak	652	847	719	754
GUZTIRA	618	664	670	659

*Udalerrriak eta kontzejuak bakarrik

Populazio-mailaren arabera aurkeztu diren datuak toki-erakundeek 2020an jasotako zenbatekoak dira. Araban, batezbestekoa 618 €/bizt. izan da, baina kontuan hartu behar da honakoak ez direla taulan sartu:

- Obra eta Zerbitzuen Foru Plana (OZFP) (7,2 M€).
- Kuadrillen partaidetza (3,6 M€).
- Auzo Harremanak Sustatzeko Ekimenetarako eta Arabako Toki Erakundeetan Obra Txikiak Gauzatzeko laguntza programak (3,1 M€).

Kontzeptu horiek guztiak kontuan hartuta, Arabako biztanleko partaidetza 660 eurokoa izango litzateke.

Bizkaian (917 €/bizt.) eta Gipuzkoan (798 €/bizt.), 1. populazio-mailaren finantzaketa handiagoa da: alde batetik, Bizkaian, udalerriek finantzaketan zenbateko finkoa dute eta ondorioz, udalerrri txikiak abantaila lortzen dute eta, beste aldetik, Gipuzkoan, Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren % 1,2 gordetzen da 1.100 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietarako, eta ehuneko hori udalerrriaren populazio-tartearen arabera banatzen da zenbateko finkoetan. Zenbateko hori Bizkaian 81.137 €-koa da, eta Gipuzkoan 84.142 € (200 biztanle baino txikiagoak diren udalerrietarako) eta 36.061 € (601 eta 1.000 biztanleen arteko udalerrietarako) artean dago.

Arabian, udal bakoitzerako esleipen finkoa 21.035 €-koa da eta, gainera, biztanle gehien dituzten udalerrriek partaidetza osagarriaren banaketan onura lortzen dute, partaidetza horren hainbat portzentaje gordetzen baitira 1.000, 5.000, 15.000 edo 50.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrri guztientzat.

